



Ekaitza

Edurne goizean inork ezer esan gabe esnatu da, zarata handi bat entzun baitu. Zarata entzun ondoren, euria oso gogor hasi du. Hura zen ekaitza! Trumoaia, tximistak, euria.

- Ama, aita, etorri, beldur naiz!
- Banoa, zaude lasai! Ez da ezer. Udaberriko ekaitz bat da, laster pasatuko da

Geroxeago ikastolara joateko Edurne ohetik jaiki denean, ekaitzak indar berdinarekin jarraitzen zuen. Gosaria mahai gainean ipini ondoren aitak esan dio:

- Edurne, botinak ipini, eta xira eta aterkia hartu: Nire aterkia ere bilatu, mesedez.

Ama eta Edurne ikastolara zihoazela, trumoirik ia ez da entzun, tximistak ere amaitu dira eta euriak bare-bare jarraitu du. Ume guztiak beldurturik eta busti-busti eginda heldu dira. Gelan esertzerakoan maisuak esan die:

- Badirudi bukatu dela ekaitza, hodei artetik eguzkia irteten ari dela esan dezakegu. Marraskiloak pozik

ibiliko dira gaur kanpoan eta jai denean, zuen gurasoekin joan zaitezke perretxikoak bilatzera, ekaitzen ostean aterako dira eta.

ARIKETAK

1. Zer dela eta esnatu da gaur goizean Edurne?
2. Zer sentitu du Edurnek? Beldurra ala poza?
3. Gosaldu eta gero, norantza abiatu dira?
4. Ekaitzik al zegoen momentu horretan?
5. Ekaitzaren ostean, zertara joan gaitezke mendira?